

Donibaneko Gaztelekuko euskeraren erabilera generoari dagokionez

Ihintza Erauskin, Peru Gorrotxategi, Unai Areizaga, Izaro Bengoetxea, Unax Ochoa eta Mikel Gametxo

SARRERA: Hizkuntza da gizartean azaltzeko modua, gure adierazpena, hizkuntzaren bitartez azaltzen ditugu gure ideiak. Hortaz, ez dago gizarteko egituretatik at, izatez, egiturei erantzuten die, bai erabilerari eta bai erabiltzaileei dagokionez. Euskarari buruz ari garenean, halaberrez, honen zaintzak garrantzi handia hartuko du, eta zaintzaz ari garenez, generoari erreparatuko diogu gure ikerketan. Gure premisa honako hau da: gizarteak sistematikoki egozten dizkio emakumei zaintza lanak, eta hizkuntzaren zaintzarekin berdina gertatzen da. Oro ar, gure ikerketa EH osoko euskara mailaren batezbesteko batean oinarritzen da. Zehazki gazteon erabileretan non geroz eta hedatuago dagoen egun gazteon artean. Egia den hala ez frogatu nahian gabiltza gure ikerketen laguntzaz.

EGITEKOA:

Ikerketan Donibaneko gaztelekuko euskara erabilerari (genero bereizketarekin) dagozkion datuak bildu eta aztertu dira. Datuak 2 astetan zehar jaso ziren edukitako denbora murriztua kontuan harturik. Horretarako, kontrol taldea eta laginketak bereizi eta tratamendua ahalbidetu da.

HELBURUAK:

- Gaztelekuan emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago hitz egiten duten euskaraz egiaztatzea edo ez, herriko datu orokorretan oinarritutako hipotesi nagusiarekin.
- Eskuhartzea eginez gaztelekuko euskararen erabilera orokorra handitzea, bereziki genero arteko desoreka murriztea lortuz.
- Hasierako egoera (kontrol taldea), esku-hartzearen aurreko egoera eta esku-hartzearen ondorengo egoera neurtu eta alderatuz, hobekuntza egon den ala ez erakustea eta emaitzak kartelaren bidez aurkeztea.

MATERIAL ETA METODOAK:

IKERKETA AREA: Donibaneko Gaztelekua. Gaztelekuan, otsailaren 20an eta 27an ariko gara laginak atera eta aztertzen.

DATUEN ANALISIA: Soziolinguistika Kluster (SLK) deritzon aplikazioaren laguntzaz, laginak atera ditugu; beti ere anonimatu bat mantenduz. Baina arazo bat eduki genuen aplikazioarekin, beraz eskuhartzea bi aldiz hartu behar izan ditugu. Honek emaitza neurri batean aldatu dezake.


ESPERIMENTSU DISEINUA:

2 egunetan gauzatuko genituen gure ikerketa, otsailaren 20an eta otsailaren 27an. Donibaneko gaztelekuan egitearen arrazoia, gure egunerokotasunean hain gertu kokatzen den eta hainbeste erabiltzen dugun eremu baten euskara erabilera neurtu eta horren arira ondorioak ateratzearena da. Eskuhartzea bi aldiz egin behar izan dugu aplikaziarekin arazo batengatik. Horregatik eskuhartzea martxoaren 14an berriro egin genuen, suposatuz, egoera hasierakoaren berdina zela, nahiz eta emaitza %100 fidagarria ez izan. Horrez gain, genero bereizketa kontuan harturik jorratuko dugu ikerketa.


ESKUHARTZEA:

Ekintza desberdinak proposatu ditugu. Gaztelekuko monitoreekin kontaktuan jarri gara gure proposamenak aldeazurrez helaraziz. Hartara, haiek ekintzak kudeatzen lagundu eta materiala ziurtatu digute beti. Hasteko, pelikulatxo batekin arratsaldeari hasiera eman genion, beti ere euskarazko pelikula bat izanik. Pelikula ezberdinak egon ziren aukeran. Jarraian, mus lantegia jorratu genuen eskuhartzearen bigarren zati gisa. Bigarren eskuhartze honetan aurrez-aurreko komunikazio handiagoa dagoenez, eragin handiagoa izango zuela uste genuen eta.

Euskararen erabilera Donibaneko gaztelekuan generoari dagokionez eskuhartzea baino lehen



euskararen erabilera Donibaneko gaztelekuan generoari dagokionez eskuhartzea ostean



ONDORIOAK:

Hasierako egoeran gure hipotesia betetzen da, emakumeek gizonezkoek baino euskara gehiago hitz egiten dute gutxiatik bada ere. Eskuhartzearen ostean egindako ondorioei erreparatuz, argi ikusi dugu gure hasierako hipotesia bete dela, hau da, emakumezkoek gizonezkoek baino euskara gehiago egiten dutela. Bestalde, eskuhartzeak eragina izan duela ikusi dugu, izan ere, eskuhartzea ondoren hartu ditugun datuetan euskara gehiago ageri da.

BIBLIOGRAFIA:

- Pasaiaiko euskara erabilera: Uso del euskera - Pasaia. (s. f.). Pasaia. <https://www.pasaia.eus/es/uso-del-euskera>
- Gizon eta emakumeen euskara erabilera: Frantzesena, J. (2017, 1 diciembre). Euskararen kale erabilera %74koa da batez beste eskualdeko zazpi herritan. Guka.eus. <https://guka.eus/zumaia/1657555402594-euskararen-kale-erabilera-74koa-da-batez-beste-eskualdeko-zazpi-herritan>
- Trikuia esnatu da: Susa / Trikuia esnatu da / Lorea Agirre Dorronsoro, Idurre Eskisabel Larrañaga. (s. f.). <https://www.susa-literatura.eus/liburuak/lisi07>